EGITEKO DIRULAGUNTZAK ELKARTEEI**

**SUBVENCIONES A ASOCIACIONES PARA LA REALIZACIÓN DE PROYECTOS DE
COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO EN PAÍSES EMPOBRECIDOS.**

10.- Dirulaguntzaren zenbatekoa. Bigarren paragrafoa. – **10.- Cuantía de la subvención. Segundo párrafo.**

- **Hau esaten duen tokian:** Hautatutako proiektuei emandako diru-laguntzen zenbatekoa, oro har, eskatutako laguntzaren %100eko izango da, 60 puntu baino gehiagorekin baloratuak izan badira. Aldiz, gehienez eskatutakoaren % 75eko laguntza emango zaie 25 eta 59 arteko puntuazioarekin baloratuak izan diren proiektuei.

- **Donde dice:** “El importe de las subvenciones concedidas a los proyectos seleccionados será, con carácter general, el 100 % de la subvención solicitada, si éstos han sido valorados con más de 70 puntos. En cambio, se concederá como máximo una ayuda del 75 % a los proyectos que hayan obtenido en la valoración entre 50 y 69 puntos. Y se concederá como máximo una ayuda del 50% a los proyectos que han obtenido entre 25 y 49 puntos.

- **Hau esan behar du:** Hautatutako proiektuei emandako diru-laguntzen zenbatekoa, oro har, eskatutako laguntzaren %100eko izango da, 60 puntu edo gehiagorekin baloratuak izan badira. Aldiz, gehienez eskatutakoaren % 75eko laguntza emango zaie 25 eta 59 arteko puntuazioarekin baloratuak izan diren proiektuei.

-**Debe decir:** “ El importe de las subvenciones concedidas a los proyectos seleccionados será, con carácter general, el 100 % de la subvención solicitada, si éstos han sido valorados con 60 puntos o más. En cambio, se concederá como máximo una ayuda del 75 % a los proyectos que hayan obtenido en la valoración entre 25 y 59 puntos.

5. ERANSKINA: 5 Dirulaguntza lerroa

ANEXO 5: 5.ª Línea de subvenciones

NAZIOARTEKO LANKIDETZA BOLUNTARIOAN DIHARDUTENENTZAT DIRULAGUNTZAK

**SUBVENCIONES PARA PERSONAS QUE PARTICIPAN VOLUNTARIAMENTE EN
COOPERACIÓN INTERNACIONAL.**

5.- Dirulaguntzaren zenbatekoa. Bigarren paragrafoan.

5.- Cuantía de la subvención. Segundo párrafo.

- **Hau esaten duen tokian:** Hautatutako proiektuei emandako dirulaguntzen

- **Donde dice:** “ El importe de las subvenciones



TOLOSAKO
UDALA

zenbatekoa, oro har, eskatutako laguntzaren %100eko izango da, 70 puntu baino gehiagorekin baloratuak izan badira. Aldiz, gehienez eskatutakoaren % 75eko laguntza emango zaie 50 eta 69 arteko puntuazioarekin baloratuak izan diren proiektuei.

- **Hau esan behar du:** Hautatutako proiektuei emandako diru-laguntzen zenbatekoa, oro har, eskatutako laguntzaren % 100eko izango da, 70 puntu edo gehiagorekin baloratuak izan badira. Aldiz, gehienez eskatutakoaren % 75eko laguntza emango zaie 50 eta 69 arteko puntuazioarekin baloratuak izan diren proiektuei.

concedidas a los proyectos seleccionados será, con carácter general, el 100 % de la subvención solicitada, si éstos han sido valorados con más de 70 puntos. En cambio, se concederá como máximo una ayuda del 75 % a los proyectos que hayan obtenido en la valoración entre 50 y 69 puntos. Y se concederá como máximo una ayuda del 50 % a los proyectos que hayan obtenido entre 25 y 49 puntos”.

- **Debe decir:** “ El importe de las subvenciones concedidas a los proyectos seleccionados será, con carácter general, el 100 % de la subvención solicitada, si éstos han sido valorados con 70 o más puntos. En cambio, se concederá como máximo una ayuda del 75 % a los proyectos que hayan obtenido en la valoración entre 50 y 69 puntos”.

6. ERANSKINA: 6. Dirulaguntza lerroa

ANEXO 6: 6ª línea de subvenciones

LARRIALDI EGOERETAN EKINTZA HUMANITARIO ETA PUNTUALETARAKO PROIEKTUAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK

SUBVENCIONES PARA LA EJECUCIÓN DE PROYECTOS PARA ACCIONES HUMANITARIAS Y DE CARÁCTER PUNTUAL EN SITUACIONES DE EMERGENCIA

Capítulo 3.- Gastos subvencionables – apartado 2 – letra b:

- **Donde dice:** “Los destinatarios a detener el proceso de aumento de vulnerabilidad y desestructuración económica de familias y comunidades”.

- **Debe decir:** “Los destinados a detener el proceso de aumento de vulnerabilidad y desestructuración económica de familias y comunidades, a través de ayuda alimeticia, semillas, programas de empleo o por medios similares.

- **Hau esaten duen tokian:** 5. Laguntzen -**Donde dice:** 5. Cuantía de las ayudas.



TOLOSAKO
UDALA

zenbatekoa

- **Hau esan behar du:** 7. Laguntzen zenbatekoa.

-**Debe decir:** 7. Cuantía de las ayudas.

Donde dice: 6. Instrucción

- **Hau esaten duen tokian:** 6. Instrukzioa

-**Debe decir:** 8. Instrucción.

- **Hau esan behar du:** 8. Instrukzioa

Donde dice: 7. Resolución.

- **Hau esaten duen tokian:** 7. Ebazpena

-**Debe decir:** 9. Resolución.

- **Hau esan behar du:** 9. Ebazpena

Donde dice: 8. Plazo de ejecución y de justificación.

- **Hau esaten duen tokian:** 8. Proiektua gauzatzeko eta justifikatzeko epea.

-**Debe decir:** 10. Plazo de ejecución y de justificación.

- **Hau esan behar du:** 10. Proiektua gauzatzeko eta justifikatzeko epea.

Horrela ager dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan. Y para que conste a los efectos oportunos.

Tolosa, 2019ko irailaren 26an

IDAZKARIA
BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

14. Batzorde informatiboen osaketa:
zinegotzien eta taldeen zerrenda.

14. Composición de las comisiones
informativas: relación de concejales
y concejales, y de los grupos.

Idazkariak batzorde informatiboen osaketaren berri eman du. Honako hau da:



TOLOSAKO
UDALA

BATZORDE INFORMATIBOEN OSAKETA

1. ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE IRAUNKORRA (Kontuen Batzorde Bereziari dagozkion funtzioekin)

- Lehendakaria:** - **Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)**
- Kideak:**
- **Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)**
 - **Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)**
Ordezkoak: Patxi Amantegi Zubiria
Joseba Ormazabal Lopez
Egoitz Sorozabal Iturain
 - **Garbiñe Marzol Ormazabal (EHBILDU)**
 - **Aitana Amondarain Eskisabel (EHBILDU)**
 - **Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU)**
Ordezkoak: Andu Martinez de Rituerto Arregi
Ander Figuerido Zubiria
Xabier Martinez Quinquilla
 - **Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)**
- Idazkaria:** - **Begoña Garmendia Vazquez.** Ordezkoa: Paulino Alonso Eraso

2. LURRALDEKO BATZORDE IRAUNKORRA

- Lehendakaria:** - **Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)**
- Kideak:**
- **Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)**
 - **Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)**
Ordezkoak: Xabier Balerdi Tolosa
Nerea Letamendia Belloso
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe
 - **Ander Martinez de Rituerto Arregi (EHBILDU)**
 - **Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU)**
 - **Aitzol Garzia Azurmendi (EHBILDU)**
Ordezkoak: Aitana Amondarain Eskisabel
Kristina Pelaez Errazkin
Olatz Artola Apeztegia
 - **Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)**
- Idazkaria:** - **Jone Miner Aginaga.** Ordezkoa: Aitor Etxaide Agirre



3. HERRITARREN BATZORDE IRAUNKORRA

- Lehendakaria:** - **Nerea Letamendia Beloso** (EAJ-PNV)
- Kideak:**
- **Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe**(EAJ-PNV)
 - **Joseba Ormazabal Lopez** (EAJ-PNV)
Ordezkoak: Xabier Balerdi Tolosa
Patxi Amantegi Zubiria
Begoña Tolosa Mendia
 - **Olatz Artola Apeztegia** (EHBILDU)
 - **Aitzol Garzia Azurmendi** (EHBILDU)
 - **Xabier Martinez Quinquilla** (EHBILDU)
Ordezkoak: Andu Martinez de Rituerto
Kristina Pelaez Errazkin
Garbiñe Marzol Ormazabal
 - **Jose M^a Villanueva Telleria** (PSE-EE)
- Idazkaria:** - **Alaine Izagirre Lopez.** Ordezkoa: Garikoitz Lekuona Izeta

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

15.Batzorde informatiboei buruzko dekretuen berri ematea: 2019/1469 eta 2019/1470.

15. Dar cuenta de los decretos emitidos sobre las comisiones informativas: 2019/1469 eta 2019/1470.

Alkatzak 2019ko irailaren 12an emandako 1.469 eta 1.470 Dekretuen berri eman die bertaratutakoei.

2019/1469 dekretua: Hitzez hitz honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

2019/1469

OLATZ PEON ORMAZABAL *Tolosa Udaleko alkate-lehendakariak, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1.a) artikuluan, eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzkoak, bere 125.a) artikuluan xedatzen duenaren arabera, eta ondoko hauek*

IKUSIRIK

LEHENA.- *Tolosako udalbatza plenoak, 2019ko uztailaren 19an egindako ezohiko bilkuran, besteak beste, erabaki zuela Udaleko Batzorde Informatibo iraunkorrak eta Kontuen Batzorde*



TOLOSAKO
UDALA

Berezia sortzea eta Batzorde bakoitzean udal talde bakoitzari zegokion ordezkariak eta kideen kopurua zehaztea.

BIGARRENA.- Ondorengo egunetan, Tolosako udalean eratu diren udal taldeek izendatu dituztela beren ordezkariak -eta haien ordezkoak- aipaturiko Batzorde Informatiboetan parte har dezaten.

HIRUGARRENA.- Batzorde Informatibo bakoitza osatu ahal izateko, ezinbestekoa dela Idazkari bat izendatzea.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzkoak, bere 137.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, Batzorde bakoitzeko akta jasoko dela, gutxienez ondoan adierazten diren zehaztasunekin: lekua, data, hasierako eta bukaerako ordua, parte hartzaileak, Lehendakaria eta Idazkaria bereiziz, etorri ez direnen aipamena, bilkura-mota, aztertutako gaiak, partaideen iritzi laburtuak, bozketak eta irizpenen zati xedatzailea. Akta honi erantsiko zaizkio onartutako irizpenak eta boto partikularrak, egongo balira. Halaber, 138. artikulua xedatutakoaren arabera, atal horretan arautzen ez diren gaietan, plenoko araudia aplikagarria izango dela.

Dekretu honen 109 artikulua arautzen duela Plenoko akten edukia, eta bertan aipatzen dela Batzordeko Idazkariari dagokiola zeregin hau betetzea.

BIGARRENA.- 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, gaikuntza nazionala duten udal-administrazioko funtzionarioen zuzenbide araudia erregulatzen duenak, bere 3.2. a) eta d) artikuluan ez dituela aipatutako gaikuntza nazionalako funtzionarioentzat gordetako fedepublikoko funtzioen artean, erabakiak hartzen ez dituzten organoetako idazkari gisa jardutea.

Beraz, ondoko hau

ERABAKI DUT

LEHENA.- Jarraian adierazitako funtzionarioen esku uztea sortu diren hiru Batzorde Informatiboetan Idazkari jarduteko funtzioa, udal idazkari orokorraren ordezko gisa:

- **ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE IRAUNKORRA (Kontuen Batzorde Bereziari dagozkion funtzioekin):** Begoña Garmendia Vazquez (udal idazkaria denez, delegaziorik ez dago). Ordezkoa: Paulino Alonso Eraso.
- **HERRITARREN BATZORDE IRAUNKORRA:** Alaine Izagirre Lopez. Ordezkoa: Garikoitz Lekuona Izeta.
- **LURRALDEKO BATZORDE IRAUNKORRA:** Jone Miner Aginaga. Ordezkoa: Aitor Etxaide Agirre.



BIGARRENA.- Edozein organo kolegiaturen idazkaritzari lotutako funtzioak burutuko dituzte (batzordearen gai-zerrenda prestatzea, batzordeburuaren zuzendaritzapean; deialdia bidaltzea batzordeko kideei momentu bakoitzean adostutako bitarteko telematikoen bidez; bileraren akta egitea; bere kasuan gaiak Idazkaritza Nagusira bidaltzea, batzordeko idazkariaren diligenziarekin eta ahalik eta lasterren Udalbatzaren edo Tokiko Gobernu Batzarraren deialdian sartu ahal izateko, etab.).

Arloko hileko kudeaketa-txostena prestatzeari dagokionez, batzordearen idazkariak ziurtatu beharko du sail edo azpisail bakoitzak eman behar duen informazio guztia badagoela batzorderako deialdia egin behar denean, nahiz eta arlo bakoitzari egokituko zaion koordinazio-taldean adostea nola sartuko den informazioa hileko kudeaketa-txostenean nahiz, egoki bada, urteko kudeaketa-memorian.

Hala ere, batzordera eramango diren gaiak prestatzeko ardura egokituko zaie dena delako arloko sail edo azpisaileko langileei, betiere ordezkariaren oniritziarekin. Halaber, gai horiek ere beste organo kolegiatu batzuetan eztabaidatu behar badira, batez ere Udalbatzan eta Tokiko Gobernu Batzarrean, organo kolegiatu horietako bilerak egin ondoren sail edo azpisaileko langileei egokituko zaie gainerako tramitazio administratiboarekin jarraitzea. Prozedura bera izango da organo eskuduna alkatea edo zinegotzi-ordezkaria denean ere.

Aurrez xedatutakoaren kalterik gabe, batzordeetako idazkari funtzioan jarduteko kontuan izango dira, indarreko legerian xedatutakoaz gain, osoko bilkuraren 2019ko uztailaren 19ko erabakia —batzorde informatibo berriak sortzekoa—; batzordeetako lehendakaritzak eskuordetzeko eta batzordeetako kideak izendatzeko dekretua; idazkari nagusiak batzordeen funtzionamendua homogeneizatzeko ematen dituen jarraibideak; kasu bakoitzean Zuzendaritza taldeak edo arloko koordinazio taldeak adostutakoa, arduradun tekniko eta politikoen (aldi berean batzordeburu dira) bidez bideratua, eta kasu bakoitzean batzordeburuak xedatzen duena.

HIRUGARRENA.- Aurrerantzean, edozein aldaketa edo izendapen berri egin aurretik idazkari orokorrari jakinarazi beharko zaio, hori baita batzorde guztietako jatorrizko idazkaria.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea interesdun guztiei, Idazkari Orokorrari, eta sail eta azpisailei.

BOSGARRENA.- Dekretu honen berri ematea dagokion Batzorde Informatiboari eta Udalbatzari egingo duten hurrengo bilkuratan, eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako Udaleko web orrian.

SEIGARRENA.- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan xedatutakoa betetzea ebazpen honetan adierazitakoei buruz publikotasun aktiboari dagokionean

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

Alkate-lehendakariak agindua eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, 2019ko irailaren 12an.



TOLOSAKO
UDALA

ALKATEAK

Nire aurrean
IDAZKARIAK

2019/1470 dekretua: Hitzez hitz honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

2019/1470

OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosa Udaleko alkate-lehendakariak, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1.a) artikuluan, eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzkoak, bere 125.a) artikuluan xedatzen duenaren arabera, eta ondoko hauek

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako udalbatza plenoak, 2019ko uztailaren 19an egindako ezohiko bilkuran, besteak beste, erabaki zuela Udaleko Batzorde Informatibo iraunkorrak eta Kontuen Batzorde Berezia sortzea eta Batzorde bakoitzean udal talde bakoitzari zegokion ordezkari eta kideen kopurua zehaztea.

BIGARRENA.- Ondorengo egunetan, Tolosako udalean eratu diren udal taldeek izendatu dituztela beren ordezkariak -eta haien ordezkoak- aipaturiko Batzorde Informatiboetan parte har dezaten.

HIRUGARRENA.- Batzorde Informatibo bakoitza osatu ahal izateko, dagokion Lehendakari eta ordezkariak ebatzi behar dela.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzkoak, bere 125.a) artikuluan xedatzen duenaren arabera, Alkate-Lehendakaria dela Batzorde Informatibo guztien berezko Lehendakaria. Hala ere, kargu hori eskuorde dezakeela beste zinegotziarengan, baino horretarako beharrezkoa da Batzorde Informatiboak dagokion hautaketa gauzatzea

Beraz, ondoko hau

ERABAKI DUT

LEHENA.- Tolosako udalak eratu ditu Batzorde Informatiboetako proposatzea ondoko Lehendakari izendapenak onartzea, Alkate-Lehendakariaren delegazioz arituko direnak ordezkari gisa:

- **ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE IRAUNKORRA : Xabier Balerdi Tolosa.**
- **HERRITARREN BATZORDE IRAUNKORRA: Nerea Letamendia Belloso**
- **LURRALDEKO BATZORDE IRAUNKORRA: Begoña Tolosa Mendia**



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Lehendakariak eskuordetu zaizkien zinegotziak absente, kanpoan edo beste eragozpenen bat izanez gero, Alkateak bereganatuko ditu zuzen-zuzenean eskuordeturiko eskumenak organo kolegiadun guztien lehendakaria den heinean, horretarako ez delarik beharrezkoa izango ebazpen berri bat egitea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea interesdun guztiei, Idazkari Orokorrari, eta sail eta azpisaili.

LAUGARRENA.- Dekretu honen berri ematea dagokion Batzorde Informatiboari eta Udalbatzari egingo duten hurrengo bilkuratan, eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako Udaleko web orrian.

BOSGARRENA.- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan xedatutakoa betetzea ebazpen honetan adierazitakoei buruz publikotasun aktiboari dagokionean.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

Alkate-lehendakariak agindua eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, 2019ko irailaren 12an.

ALKATEAK

Nire aurrean
IDAZKARIAK

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

16.2019/1390 Dekretuaren berri ematea: Delegazioaren abokazioa:

16.Dar cuenta del Decreto 2019/1390: Avocación de delegación.

Alkatetzak 2019ko abuztuaren 27an emandako 2019/1.390 dekretuaren berri eman zaie bertaratutakoei. Hitzez hitz honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

1.390/2019

OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana.



TOLOSAKO
UDALA

2019-2023 epealdirako Udal Korporazioa eraturik eta udal jarduera ahalik eta eraginkorrena izateko asmoz, Alkatetza honek beharrezkotzat jo zuen izaera orokorreko eta izaera bereziko eskuduntzak hainbat zinegotziren esku uztea, 2019ko uztailaren 12an egindako dekretua osatuz.

Ebazpen hori emateko kontutan hartu zen ondorengo legedia:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituen (21.1a, 21.3, 23.4 eta 75. artikulua).
- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa onartzen duena (9. artikulua).
- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (25.1, 25.2, 25.3, 25.7, 27., 32.1, 32.2, 33.3 artikulua eta lehenengo xedapen gehigarriaren 1.c) atala).
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Udal Korporazioen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena (13. artikulua eta laugarren xedapen gehigarria).

Ebazpen horretan, besteak beste, jarraian zerrendatzen diren eskuordetza hauek eta zinegotzi honen alde egin ziren, Kultura eta Festa azpisailari dagokionez:

- Kultura (Musika Eskola, Bandak eta Udal Biblioteka barne) eta Festak: Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe.

Eskuordetza horiek ahalmen hauek zituen dagozkien jarduera eremuetan:

- **Gobernurako sailetan/azpisailetan, zerbitzuetan eta gai guztietan eskuordetutako eskuduntza komunak:**
 - Alkatea eta Udala ordezkatzeari bere delegazioaren eremuan.
 - Dagokion saileko/azpisaileko zerbitzuen zuzendaritza politikoa, programazioari, antolamenduari eta kudeaketari dagokionez, saileko/azpisaileko programa eta zerbitzuak onartzea eta horiek gauzatzeko dekretuak ematea.
 - Udal gobernuak ezartzen dituen ildoen arabera, politika sektorialen diseinu, proposamen eta zuzenketa.
 - Saila/azpisaila zuzentzea eta udal organo eskudunari proposatzea egitura edo egituren aldaketa. Era honetan, eskuordetzaren esparrutik kanpo gelditzen dira Sail eta Azpisailen antolakuntza eta egituraren inguruko ebazpenak. Baita, ebazpen honen betearazpenean, delegatuen artean ebazpenei buruz gerta daitezkeen gatazken ebazpena ere.
 - Bilerak eta harremanak izatea dagokion batzorde informatzaileko lehendakariarekin eta saileko eta arloko gainerako zinegotzi delegatuekin eta arduradun teknikoekin, elkarrekin koordinaturik egoteko eta elkarren berri izateko, nagusiki arloko koordinazio bileren baitan.
 - Udalak uneoro bultzatzen dituen zeharkako ekimenak dagokion sail/azpisailak garatzearen ardura politikoa eta ekimen horien garapena sail/azpisailean bultzatzea,



indarreko legedia betetzeko helburuarekin nahiz etengabeko hobekuntzaren politikaren baitan, helburuen betetzea, modernizazioa eta zerbitzu publikoen kalitatea bermatuz.

- Dagokion sailerako/azpisailerako Giza Baliabideetako (GGBB) azpisailari giza baliabide berriak (finkoak nahiz aldi baterakoak) proposatzerakoan edo giza baliabide horien baldintzen aldaketaren bat proposatzerakoan, saileko/azpisaileko zinegotzi delegatuaren beharrei buruzko txostena egitea, arduradun teknikariarekin batera.*
- Saileko/azpisaileko teknikari arduradunarekin batera dagokion aurrekontu proposamena egitea, dagokion helburuak zehaztuz eta horiek ebaluatuz Ogasun Saitetik finkatutako irizpideei jarraituz. Zentzu berean, sailerako/azpisailerako edozein aldaketa planteatuz gero. Baita ordenantza fiskalei dagokienez, sailarekin/azpisailarekin lotutako edozein aldaketa/berrikuspenen kasuan ere; etab.*
- Udalbatzarraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren gai-zerrendan saileko/azpisaileko gaiak sartzeko proposatzea.*
- Proposatzea alkateari sailarekin/azpisailarekin lotutako akordioak hartzeko eskuordetuak ez dauden eskumenei dagozkien kasuan.*
- Dagokion batzorde informatzaileko lehendakariari proposatzea bere jardueraremuarekin lotutako gaiekiko batzordearen iritzia eskatzea, Udalbatzarraren eskumena izan gabe ere, gaiaren garrantziaren baitan batzordearen iritzia ezagutzea egokia dela irizten duenean dagokion akordioa hartu aurretik.*
- Dagokion batzorde informatzaileko lehendakariari proposatzea bere delegazio eremuarekin lotutako gaiekiko berri ematea batzordearentzat gai interesgarriak izan eta organo eskudunek horien inguruan erabakitzen dutenean.*
- Bere sailari/azpisailari dagozkion ordenantza, araudi eta erabakiak betearaztea.*
- Kontratu txikiak: bere delegazioko saileko/azpisaileko gaietan bere osotasunean kontratu txikien espedienteak artezteak, zenbatekoa edozein dela ere. Kontratu txikien kasuan beraz kontratazio organoa izango da. Eskumen hau egikartzeko indarreko legediak eta udalak onartutako gainerako araudi eta irizpideak jarraitu beharko dira. Kasu guztietan, zinegotzi delegatuak egiaztatuko du kontratuaren xedea ez dela aldatzen kontratazioko arau orokorrak ez aplikatzeagatik, eta kontratistak ez dituela sinatu kontratu txiki gehiago urte berean, bakarka edo multzoan, 15.000 €-ko kopurua gainditzen duten hornidura edo zerbitzu kontratuetan, eta 40.000 €-ko kopurua obretan.*
- Obra proiektuak edo zerbitzuen edo horniduren memoriak, proiektuak edo baliokideak onartzea, zinegotzi delegatua kontratatzeako eskuduna denean, aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera.*
- Gainerako kontratuak: kontratu txikietatik kanpo gainontzeko organoek sustatu behar dituzten kontratazio espedienteen hasiera dagokion saileko/azpisaileko zinegotzi delegatuaren proposamenaren baitan burutuko da, edozein kasutan Ondare eta Kontratazio Azpisailarekin koordinatuz.*
- Gainerako kontratuak: Kontratazio-organook -Alkateak edo Tokiko Gobernu Batzarrak- esleitutako kontratuen inguruko fakturen edo obra ziurtagirien onarpena, kontratuaren*



kitapenari dagokiona izan ezik, beti ere sailak edo azpisailak sustaturiko kontratuen kasuan. Hilero, onartutako fakturen zerrenda igorriko dio dagokion kontratazio-organoari.

- *Dirulaguntzak, beka, sariak eta beste laguntzak: eskuordetutako sailari/azpisailari dagozkion gaiekin lotuta, bai beste erakundeek onartutako deialdiak direla-eta Udala onuradun izan daitekeen espedienteak bere osotasunean izapidetzea, bai Udalak deitutako dirulaguntza, beka, sari eta bestelako laguntzak emateko prozedurak, norgehiagokan nahiz zuzenean ematen direnak izanda ere.*
- *Dirulaguntzak emateko prozeduren eskumen eskuordetzearen baitan, bai Udala eskatzaile eta bere kasuan onuradun bezala diharduenean, bai hirugarrenen eskaeren aurrean Udalak esleitzen dituenean, ondorengoak hartuko dira eskuordetuztat: sinatzea izapideko edo behin betiko dokumentuak, ahalmena gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpen-proposamenak eta dekretuak barne. Bereziki, beste batzuen artean, ondorengoak: dirulaguntza eskaerak aurkeztearekin lotutakoak dagokien proiektu/memoriekin etab. batera, eta zuriketarako dokumentazio guztiarekin batera, dirulaguntzen lerro bakoitzaren oinarriak eta deialdiak onartzea; dirulaguntzaren inguruko ordainketa-betebeharra baimendu, disposatu eta aitortzea; zuriketan baino lehen ordainketa aurreratuak egiteko baimena; deialdi bakoitzari dagokionez Balorazio Batzordea osatzea eta kideak izendatzea; dirulaguntzaren zuriketa egiaztatzen duen txosten teknikoari oniritzia ematea; orokorrean dirulaguntzak egiaztatzeko eta dirulaguntzak itzultzeko prozeduren inguruko eskuduntzak; egoki bada, hautaketa-prozesua hutsik uztea eta dirulaguntza zuzenetarako hitzarmenak onartu eta sinatzea. Hala ere, erabakitzen bada organo iraunkor bat sortzea Udaleko sail edo azpisail guztietatik onartzen diren dirulaguntzen deialdietarako, alkateak eskumena izango du balorazio batzordea eratzeko eta kideak izendatzeko, eskabideak aztertu eta balora ditzaten. Eta baita beharrezkoa balitz deialdi bateratuak bultzatze aldera alkateak onartuko lituzke oinarri orokorrak. Beka, sari eta bestelako laguntzak emateko prozedurari dagokionez, eskuordetzeak erreferentzia egingo dio izapideko edo behin betiko dokumentuak sinatzeari, delegazioa gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpen-proposamenak eta dekretuak barne.*
- *Zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuak onartzea, bere sailari/azpisailari atxikitakoak direnean eta betiere 60.000 € + BEZa baino gutxiago denean.*
- *Jabari publikoan edo, bere kasuan, udal eraikin itxian aisialdiko, kulturako, kiroleko, hezkuntzako, etab. etako jarduera burutzeko eta berau garatzeko materiala uzteko eta erabiltzeko baimena ematea, esleitutako saileko/azpisaileko gaietan, beti ere saileko eta azpisailetako funtzionario arduradunen esku ez dagoen kasuetan.*
- *Festa programa, jaialdi eta gainerako edozein motatako ekintzen eta jardueren programazioa, planifikazioa eta onarpena, esleitutako saileko/azpisaileko gaietan, duten gastu-mugaren barruan.*
- *Zigor-espedienteak hasi eta ebaztea, bere eskuordetze-eremuari dagozkion gaietan.*

Eskuordetza hauek indarrean 2019ko irailaren 1etik aurrera sartu behar ziren.



TOLOSAKO
UDALA

Kultura eta Festa azpisailak izango dituen premiak kontuan hartuz, ordea, beharrezkoa da Alkateak bereganatzea azpisail horretan aipatutako eskuordetzak. Izan ere, zinegotzi delegatua ez da egongo irailaren 23ra arte. Beraz, bitartean Alkateak bereganatuko ditu.

Aplikagarria den legedia:

- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoan onartzen dena (10 artikulua).
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Udal korporazioen Antolategia, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erreglamendua onartzen duena (14. artikulua).

Beraz, arrazoi teknikoak kontutan hartuz, Alkatetza honek

EBATZI DU

Lehena: *Kultura eta Festa azpisailan Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe zinegotzi delegatuaren alde egindako eskuordetzak abokatzea, 2019ko irailaren 1etik 22ra, biak barne.*

Bigarrena.- *Ebazpen hau Zinegotzi Delegatuari eta sailaren arduradunei jakinaraztea.*

Hirugarrena.- *Osoko Bilkurari Dekretu honen berri ematea hurrengo batzarrean, eta argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta bere web orrian.*

Tolosan, 2019ko abuztuaren 27an

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

17.Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2019ko maiatzaren 2tik abuztuaren 31ra (2019/692-2019/1.416).

17.Notificación de los siguientes decretos emitidos por la Alcaldía:
Del 2 de mayo al 31 de agosto de 2019 (692/2019-1.416/2019).

Alkatetzak 2019ko maiatzaren 2tik abuztuaren 31ra (2019/692-2019/1.416) bitartean egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.



18.Mozioa, aldaketa klimatikoaren aurkako konpromisoak hartzeko.

18.Moción para la adopción de compromisos contra el cambio climático.

Mozioaren testua ondoko hau da:

KLIMA ALDAKETAREN AURKA KONPROMISO ZEHATZAK HARTZEKO MOZIOA

Larrialdi Klimatika datozen urte eta hamarkadetako agenda baldintzatzera etorri da, gure ongizatearentzako mehatxu nagusienetakoa baita, benetako zibilizazio erronka bat. Mundu mailako eta Euskal Herriko egoera eta joerak ez du baikortasunerako tarte handiegirik uzten, are gutxiago geldotasunerako. Gazteentzako dagoeneko kezka nagusi bihurtu da, ez bakarrik larrialdia, baita gaiari ematen zaion erantzun politiko eskasa ere.

Azken urte luzeetan komunitate zientifikoak aldaketa klimatikoaren bilakaeraren inguruko abisuak eta jakinarazpenak igorri ditu. Aldaketa klimatikoa Berotegi Efeztuzko Gasen isuri masibo baten ondorioz gertatzen ari da, eta isuri horien arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, gure metabolismo sozioekonomikoa mantentzeko erretzen ditugun baliabide fosilen erabilpenean datza. Aldaketa klimatikoa, beraz, guk eragiten dugu nagusiki, eta dagoeneko ondorioak atzematen hasiak gara.

Urtez urte argitaraturiko txostenetan, egoera kaskartzen ari delako zantzuak ditugu. Nazioarteko hainbat erakunde eta lantaldek argitaratzen dituzten txostenetan gero eta argiago esaten da klima eta energia politketan, eta, ondorioz, gure egunerokotasunean, eraldaketa sakon bat, iraultza bat, eman behar dela, baldin eta egoerari aurre egin nahi baldin badiogu eta aldaketa klimatikoaren efektu bortitzenak pairatu nahi ez baditugu. 2018ko urrian, IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak plazaraturiko txosten berezi batean, tonua altxa zuen indarrean dauden politikek behar besteko anbizioz ez dutela salatuz, eta elektrizitatearen, nekazaritzaren, garraioaren eta industriaren sektoreetan aurrekaririk gabeko aldaketak eskatuz.



TOLOSAKO
UDALA

2018ko azaroan, Nazio Batuen Ingurumen Panelak aditzera emandako txostenak egoera larria dela ohartarazten du, esfortzuak areagotzen ez badira, hondamendira goazela azpimarratuz.

Gaia bere osotasunean ikusirik, argi dago ataka batean gaudela eta orain arte proposatu eta egindakoa berraztertu beharrea gaudela. Ahal dela, eta industria iraultza aurretiko egoerarekin alderatuta, 1,5° C-ko tenperatura igoera ez gainditzea helburutzat zuen 2015eko Parisko Akordioa betetzeko, orain arte emandako pausoak guztiz ez-nahikotzat jo beharrea gaude.

Hasieran genion bezala, zibilizazio erronka baten aurrean gaude, eta aurrez aurre Jaurlaritzaren eragin esparru eta ahalmenak gainditzeko dituen lanak baditugu ere, egoerak partekaturiko esfortzu bat eskatzen du.

Gure ustetan, ipar orratza ahalik eta azkarren karbono isurietan neutroa izango den Euskal Herri baterantz begira jarri beharrea gaude, eta, horretarako, ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrak egitea. Prozesu honek gure jendartean inplikazio anitz eta sakonak ekarriko ditu, bai ehun produktiboan, bai mugikortasunean, bai lurralde antolamenduan eta abar; horregatik deritzogu pauso azkar eta eraginkorrak ematea ezinbestekoa dela.

Mozio honen bitartez, egoeraren larritasuna aitortzea dugu helburu, Larrialdi Klimatikoari behar besteko arreta ipintzeko asmoarekin, aurrerantzean politika publiko guztiak Larrialdi Klimatiko egoeraz kutsa daitezzen.

Hori horrela, Tolosako **udalbatza plenoko talde guztiok** honako MOZIOA aurkezten dugu:

- Tolosako Udalak larrialdi Klimatiko egoera deklaratu du.
- Tolosako Udalak Jaurlaritzari eskatzen dio, Legebiltzarrean tramitatzen ari den lege proiektua Eudelekin koordinatu dezala. Era berean, abian jarri duen lege proiektu horrek deklaratu duen larrialdi horri aurre egiteko beharrezkoa den karbonogabetze prozesua 2040. urtera aurreratzeko moduko plangintza eta politikak abiatu ditzala premiatzen du.
- Tolosako Udalak Jaurlaritzari eskatzen du aldaketa klimatikoaren eraginez pairatuko ditugun ondorioetara egokitze neurriak hartzera, era koordinatuan udal eta gainontzeko erakundeekin.



- Tolosako Udalak, bere eskumenen baitan, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko politika eraginkorrak garatzeko konpromiso irmoa adierazten du.
- Tolosako Udalak Aldaketa Klimatikoaren eragiten duten udal eskumeneko faktore guztien inguruko diagnosi bat eta 4/2019 Jasangarritasun Energetikoaren Legearen garapena udalerrira egokitzeko hurbilpen lan bat egingo du 8 hilabeteko epean.
- Tolosako Udalak, udalerriko egoeraren diagnosia kontuan hartuta, prozesu parte-hartzaile bat abiatuko du herritarren, auzoen, kontzejuen eta beste edozein eragileren ekarpenak barne bilduko dituen plangintza bat osatzeko 2020. urtean zehar.
- Tolosako Udalak konpromisoa hartzen du beharrezkoak diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak bermatzeko, udalerriko herritar, eragile eta auzoekin elkarlanean, plangintza hau aurrera eramateko, bere gaitasunen arabera izanik plangintza gauzatzeko epea.
- Tolosako Udalak konpromisoa hartzen du kontzientziazio kanpaina bat martxan jartzeko, erakunde, herritar eta eragile sozial, ekonomiko eta kultural guztien aldetatik klimatikoak eragiten duten faktoreak gutxitzeko. Era berean, herritar guztiak, Irailaren 27an egingo diren ekimenetan parte hartzera animatzen ditu.
- Tolosako Udalak Bando baten bitartez emango die mozio honen berri herritarrei.
- Tolosako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako trantsizio ekologikorako ministerioari bideratuko die onartutako mozioa.

Mozio honen inguruan ondoko interbentzio hauek egin dituzte taldeen ordezkariak, labur bildurik:

... Jose Mari Villanueva (PSE/EE):

- Irakurritako mozioarekin bere adostasuna azaldu du. Azpimarratu du lortutako adostasuna.
- Pauso hau erakunde ezberdinek eman dute: Espainiako gobernuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak.
- Foru Aldundiaren kasuan, Jose Ignacio Asensio, PSE/EEko diputatuak sustaturiko programa aipatu du.
- Tolosako udalak lidergoa eman behar du gai honetan, baita gasen isurien murrizketan ere.



TOLOSAKO
UDALA

- Hainbat neurri aipatu ditu: energia berriztagarriak sustatu, ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu, herritarren inplikazioa sortu.

... Andu Martinez de Rituerto (EH-Bildu):

- Ezin da eman hain mezu positiboa, ez delako lortu hainbesteko emaitzarik.
- Gure zibilizazioaren erronka da, eta premia handia dago neurriak har ditzagun.
- Bat gatoz larrialdi klimatikoaren baieztapenarekin, baino gehiegizko optimismoa dago egiten ari diren aitorpenetan. Euskal Herria aitzindaria dela esaten da, baino errealitatea tematsua da.
- 2050. urterako berotegi efektua 0 izan beharko luke, eta horretarako %100ean eraginkorrak diren sisteman eduki beharko genituzke. Baina Eusko Jaurlaritzako 2030erako estrategia urruti gelditzen da, ez ditu helburu horiek, %40ean gelditzen delako. Halaber, estrategia horrek gasaren erabilera 100 urtera luzatzen du, eta hori ez dator bat karbono 0 helburuarekin, ez dator bat Europako xedapenekin.
- Isurketei buruz Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, Euskadi dago Estatutik eta Europatik gora. Zabalgarbiko erraustegia da isurketa gehienak sortzen dituen 4. enpresa estatu osoan.
- Orain arteko plangintzek ez dute lortu buelta ematea. Lanari heldu behar diogu, denbora agortzen delako.

... Patxi Amantegi (EAJ/PNV):

- Euskal Estrategia dago espainiar estatuak lantzen duenaren menpe. Zentzu horretan, Arantxa Tapiari helarazi genizkion gure kezkek, Jose Marik esan duen moduan.
- Gure ustez, argi pixka bat dago, eta esperantza ikusten dugu. Abuztuan deituriko bileran parte hartu genuen, eta argi gelditu zen plan garrantzitsua zegoela, denon konpromisoekin, akzio zehatzekin.
- Bi ekimen azpimarratu nahi ditu: Gasteizen 24 Mw.ko produkzioa izango duen eguzki plaken instalazio-lanak hasi direla, Eusko Jaurlaritzak sustatutakoak. Bestaldetik, autokontsumoan oinarritutako instalazioen tramiteak azkartuko dituzte, 100 Kw.ko mugarekin. Hauek dira ekintza zehatzak eta garrantzitsuak.
- Tolosako udalari dagokionez, Ingurumen sailak trantsizio energetikoaren erronka bere gain hartu du eta hiru ekimen zehatzak bultzatu nahi ditu legealdi honetan: udaleko ibilgailuen flota ahalik eta gehiena elektrikoa izatea (hibridoa/



TOLOSAKO
UDALA

elektrikoa); eguzki panelak instalatzea udal eraikinetan, eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko posteak jartzea.

- Horretaz gain, ekintza txikiagoak ere bultzatu nahi ditugu: bizikletaren erabilera gehitzea, oinezkoentzako herri jasangarria izatea, argiteri publikoa hobetzea... eraikinen domotikoa ere hobetu nahi da.
 - Ekarpinak jasotzeko prest daude, gure eskuetan dagoen guztia egingo dugu.
- ... Olatz Peonek azpimarratu du 16. urteko neskato batek lortutako emaitza, denen aurrean ausartu delako.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazquin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** aldaketa klimatikoaren aurkako konpromisoak hartzeko mozioa.

19.Mozioa, Nafarroako erdialdeko uholde larrien aurrean.

19.Moción sobre las graves inundaciones de la zona media de Nafarroa.

AKORDIOA, NAFARROAKO ERDIALDEKO UHOLDE LARRIEN AURREAN

Mozioaren testua ondoko hau da:

Pasa den uztailaren 8an izandako eurite handiek eta Zidakos ibaiak gainezka egin izanak, bereziki, Nafarroako erdialdeko Tafalla, Erriberri, Puiu, Beire, Pitillas, Leotz eta beste hainbat herri kaltetu zituen. Kalte handiak eragin zituen etxebizitzetan, garajeetan eta komertzioetan, eta, era berean, oso kaltetuta gelditu ziren oinarritzko azpiegiturak eta herrietako komunikazio bideak, kaleak eta landa-bideak.

Zoritxarrez, uholde hauek 25 urteko Zeru Cañada Zorrilla gaztearen heriotza eragin zuten, bizi zen Gardalain herrira kotxez zihoala.



TOLOSAKO
UDALA

Hondamendi natural honek eskumena duten administrazio publikoen parte-hartzea eskatzen du, baita dirulaguntza ere, hain larriki kaltetua izan den eskualde honekiko elkartasun ekonomikoa adierazi nahi duten administrazio guztien partetik. Tafallako eta beste herri batzuetako udalek antolatutako auzolanetan herritar ugarik erakutsitako elkartasun pertsonalaz gain, posible izango litzateke beste toki-entitate batzuek auzolan ekonomiko bat sustatzea, besteak beste, aurre egin ahal izateko euriteek eragindako kalteak moldatzeko behar diren inbertsioei.

Honen guztiaren aurrean, honako akordioa adosteko proposamena aurkezten zaio Tolosako Udalari:

Lehena.- Udal honek elkartasuna adierazi nahi die uztailearen 8an Nafarroako Erdialdean gertatutako euriteen eta uholdeen ondorioz kaltetutako herritarrei eta udalerriei, eta, bereziki, Zeru Cañada Zorrillaren senitartekoei.

Bigarrena.- Horren haritik, Udalak onartzen du 2.000 euroko dirulaguntza bideratzea, udalerrri horietako zerbitzuetan edo azpiegituretan euriteek eragindako kalteak berreraikitzen laguntzeko.

Hirugarrena.- Udal honek herritarrak animatu nahi ditu auzolan ekonomikoan parte hartzera, kaltetuak izan diren herriei beraien elkartasuna adierazteko, eta egokia ikusten duten ekarpena egitera horretarako kaltetutako udalek ireki dituzten banku-kontuetan.

Laugarrena.- Herritarrei akordio hauen berri ematea eskura dituen bitartekoen bidez.

... Jose Mari Villanueva zinegotziak (PSE/EE) ondoko azalpenak egin ditu:

- Bere familia sustraiak aipatu ondoren, mozioarekin adostasuna azaldu du. Izan ere, Tolosarrak ados egongo dira mozio honekin. Kultura aldetik, Euskal Herria zazpi herrialdeek osatzen dute. Ez da posible izan erakunde politiko bat osatzea, baina errealitate kulturala badago.
- Historiaren aldetik, Tolosako herriak lotura eta harremana izan ditu Nafarroarekin: merkantzien pasoa handik hona eta alderantziz; XIX mendean, industrializazioarekin, nafartar asko etorri ziren bertako lantokietan lan egiteko.... Hori dena kontuan hartuta, gaur hartzen dugun erabakia tolosarren onespina izango du.

... Ander Figueridok (EH/Bildu), bere aldetik, ondoko hauek aipatu ditu, labur bilduz:

- Pozten gara EH Bilduren ekimenez aurkeztu den mozioa onartu izana. Era guztietan, handiena izan da elkartasuna, Euskal Herrian hain errotuta dagoen auzolana. Horren kulturara bueltatu behar da.
- Azkenean, gonbidapena luzatu du laguntza ematera.

... Olatz Peón:

- Uholdea eragin duten ibaiak aipatu ondoren, horien argazkiak ikusi eta tamalgarriena izan zen pertsona baten heriotza. Euskal Herria ohituta dago bere elkartasuna adierazten eta ematen, nazio gisa, barruan eta kanpoan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendiá, Nerea Letamendi Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazquin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Nafarroako erdialdeko uholde larrien aurrean babesa emateko mozioa..

20.Galderak eta eskaerak.

20.Ruegos y preguntas.

- ... Udal antolakuntza berria dela eta, Andu Martinez de Rituertok ondoko hauek aipatu ditu, labur bildurik:
- Alde positiboak: helburuak lantzea, kohesioa, herritarrei zerbitzua hobetzea, teknikari eta politikarien artean metodologia eraldatzailea....
 - Baina guk ere parte hartu nahi dugu. Prozesu honetan ez da landu egoeraren diagnosia.
 - Udalbarria liburuaren 6. puntuan agertzen den moduan, bilerak, tailerrak, formazioa, parte hartzearen inguruko lanak, egin behar ziren herritar eta langileekin, baina hori ez da burutu. Zuzenean funtzionamendura joan da.
 - Egia hori, txosten bat eman zaigu, baina azken hiru hilabetetako kudeaketari dagokionez, gela ilun batean gaude.
 - Hasieratik azaldu dute bere borondatea parte aktibo izateko.
 - Metodologia berria, egin beharreko pausoak eman gabe egin da. Ez da formakuntzarik eman.
 - Aipatu du herritarren parte hartzea ematen zela hainbat batzordeetan, eta orain ez da ematen.
- ... Joseba Ormazabalek (EAJ/PNV) ondoko erantzuna eman dio:
- Dinamika berria sortu da lau urteetan gobernuan igaro eta bizitako beharrekin erantzuteko. Gabezia handiak ikusten ziren, eta lau urteko ibilbidea, agintaldia, hasi behar zen. Auker aizan zen agintaldiaren hasieran metodologia berria aplikatzea.
 - Aurreko legealdian pauso batzuk eman ziren UDATE zerbitzu berriaren ezarpenarekin.
 - Era guztietan, ibilbidea luzea izango da. Ez da erraza izan, udara tartean egon delako. Era horretan, teknikariei eskatu zaie esfortzu bat, ohiko zerbitzuak ematen, eta metodologia berria prestatzen.
 - Irailean, txostenak prestatu dira: hiru batzordeetan banatuta, prozedurak, erritmoak, eta txostenak osatzen ari ginen, eta plangintza definitzen ari ginen.
 - Azken finean, aldaketa honek hiru helburu ditu: eraginkorragoak izatea, sailen arteko harremanak sakontzea, eta zerbitzu ona ematea.
 - Legealdirako plangintza ari gara osatzen ere, eta aukera izango duzue horren berri izateko, jarraipena egiteko eta udal gobernuak kontrolatzeko. Bi liberatu ditu



TOLOSAKO
UDALA

oposizioak udalaren barruan, bilerak, batzordeak, eta teknikari guztiak prest laguntzeko.

... Kristina Pelaezek (EH/Bildu) ondokoa azaldu du:

- EH Bilduk proposamena egin zuen hospital publikoari buruz, eragileekin bilerak izan ondoren. Izan ere, hospital publiko berria izango zen oinarri sendoa emango zien osasungintzako beharrei. Hauteskunderen bezperan, EAJK eta PSE/EEK hospital berriaren aldeko iritzia eman zuten, eta oraingoa bihurtuko zela zerbitzu soziosanitarioa. Poza hartu genuen zuen proposamenarekin, eta gure elkarlanerako prestutasuna azaldu genuen. Gaur eta hemen gure asmoa da prestutasun hori azaltzea, eta jakin nahi dugu proposamen hori zertan datza eta ze fasetan dagoeneko.
- Bestaldetik, TOPAK egin nahi zuen bilerarako zuen ezetzaren berri izan dugu. Elkarlanerako borondatea ez da oso argia.
- Azkenean, eskatu du denak batera egitea hospital publikoaren alde, eta ez bakoitzak bere aldetik.

... Olatz Peonek (Alkatea-EAJ/PNV) erantzun dio:

- Proposamen hau ez dagokio udalari, udal eskumena ez delako. Une hartan publikoki garbi utzi genuen gure posizioa.
- Elkarlanerako prest gaude, baino eskumenak dauden tokian daude.
- Gaur TOPAK egin dio deia alkateari, eta datorren astean elkartuko gara, beste alditan izan den moduan, baino ez gara bilduko alderdi bezala.
- Bilera eskatzen diguten eragile guztiei baietz esaten diegu, Alkate gisa, baino ez alderdi gisa.
- Azkenik, garaia ez dela eztabaidan sartzeko adierazi du Alkateak.

... Jose Mari Villanuevak (PSE/EE) ondokoak aipatu ditu:

- Edozein arazoak bere diagnostia behar du. Gai hau konplexua da.
- Gogoratu du historikoki zergatik sortu zen Asuncion Klinikaren zerbitzu kontzertatua, udal guztiek eskatuta, lanpostuak zorian zeuden eta zerbitzua bermatu nahi zen.
- Helburua zen besteek duten kalitate berdina izatea. Sozialistok publikoa defendatzen dugu, baino eskumenak ez daude gure esku. Eta konplexua da, dena publikoa izan behar al duen ala ez erabakitzea. Adibidez, nik 30 urteetan fundazio pribatu batean lan egin izan dut, Tolosako ikastola pribatua da...demagogia ez da erabili behar. Arazoa handia da. Adostu behar dugu denon artean, eta demagogia da esatea dena publikoa izan behar duela...Mahai bat osatu behar da, diagnostia egin, eta zerbitzuaren kalitatea aztertu.

... Andu Martinez de Rituertok (EH/Bildu) erantzun du demagogiarik ez dagoela, zentzuzko proposamena baizik. Bestaldetik Eusko Jaurlaritzak Klinikarekin duen hitzarmena ez du betetzen, zerbitzuak ez du kalitaterik.

Plenoari amaiera jarri aurretik, Alkatea den Olatz Peonek adierazi du Elkanok munduari bira eman zionetik urtemuga dela eta, jaso dutela Getariko udaleko gutuna, Elkanorekin



TOLOSAKO
UDALA

batera tolosar bat joan zela, despentsako ardura zuelarik. Azkenik, gogoratu du asteburu honetan mugikortasun jasangarriko astea ospatuko dela Tolosako udalerrian

Besterik gabe, 21:10ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, Alkateak Ontzat Emanik.

ALKATEAK
O.E.

IDAZKARIAK